Deunen bixitza

Apoliñari deuna, Gotzain eta Ziñopea

Gure Jaunak esan eutsen bein baten bere ikaslai: "Zoaze luŕ zabalean zeaŕ eta zeruko Baŕi-Ona iragaŕi egiezue gizaseme gustien. Siñetsi dagiana ta ugutzana izan daitena, zeruratuko da: siñetsi eztagiana, baŕiz, gaiztokiratu. Siñetsi dagienai alatz oneik jaŕaituko dautse: nire izenean txeŕenak egotziko dabez, izkuntza baŕiz mintzatuko dira; sugeak be bilduŕ barik esku aŕtean erabiliko dabez; berenez eriotzea dakaŕen zerbait edan aŕen be, kalterik eztautse egingo: gexoai eskuak ganean ezaŕiko dautsez eta gexoak osatu egingo dira."

Olako alatzik egiten eztogulako ¿ez ete-dogu siñesten? Eztago olakorik — diño Gergori deunak —. Alatzok Eleizearen lenengo egunetan orain baño beaŕagoak ziran. Aek lenengo kistaŕak, landara guziak baitziran ,siñestean sendotu eitezan, alatzen beaŕizana euken. Geuk be, landarak saŕtzen doguzanean, luŕean eŕoak egin aŕte ura botaten dautsegu; baña sustrayak bota dabezala ikusi ezkero, ura botateari itxi. Ori dala-ta diño Paual biaiduak: Alatzak siñeskeai emon yakez ezaugaŕitzat eta ez siñestedunai.

Josu Jaunaren ikasle izan zan Apoliñari. Kepa deunagaz joan zan lenengo Antiokei'ra ta gero Eŕoma'ra. Lankide on eta zintzoak beaŕ ebazala-ta, Apoliñari Gotzain egin eban Kepa deunak eta Ravena'ra bialdu, Jaunaren aloŕean lanari ekin ebazan Apoliñari'k ,eta alatz oŕein bidez kistaŕtu ziranak ,etziran izan gitxi. Uriko atean mutiko itsua auŕkitzen dau: onek ukaŕa eskatzen dautso ta Apoliñari'k ukaŕ ordez ikusmena damotso mutiko itsuari. Ori zala-ta, lagun aldra andia batzen da ta Apoliñari'k diñotse: Aizkideak, alatza egin dodala-ta, ¿zegaŕik aŕitzen zarie? Eta batez be, ¿zegaŕik ni aintzat aŕtzen nozue neure al eta indaŕez egin bai neban? Itsu oni ikusmena emon ba-dautsat, erazazu ta adierazo nai dautzuedan egiazko Jaungoiko'aren izenean egin dot alatz ori, ta betiko bizitzea jadesteko, Jaun onen Uskuŕtza baño beste biderik eztago.

Mutikoa, gudari zan eta Iren eritxon onen aita ,sendi osoa ta beste batzuk kistaŕ egin ziran alatz ori zala-ta. Emaztea gexorik eukan gudalburua eŕuki eske datoŕkio Apoliñari. Ba doa gudalburuaren etxera, eta Jaungoikoa'ri otoitz eta emakumeai gurutze-ezaugaŕia egin ondoren, gexoari diñotso: Josu-Kisto'ren izenian jagi zaite eta zabiltz. Iltzer egoan gexoa otsean jagi ta Apoliñari'n oñetan auzpaztzen da: senaŕa ta sendi osoa be auzpaztzen dira ta egiazko Jaungoikotzat kistaŕen Jaungoikoa autortzen dabe. Ugutza aŕtu ta kistaŕ egiten dira. Gudalburuak Ravena'n eukazan etxeetatik bat Apoliñari atsegiñez damotso, ango Eleiz jayopaŕiaren seaska irateko. Jazarkundea zala-ta ,eleizkizunak ezkutuan yoazala joanik, kistaŕen buru lez salatu eben Apoliñari. Jupiter, gure jainko andia iraindu dozu zuk—esan eutsan jauŕleak asaŕez—. Apoliñari'k, ostera: Jupiter nor dan be eztakit nik. Ezpa-dakizu diñotsò jauŕleak —neuk ezagutuazoko dautzut; zatoz neugaz bere jauregira. Ba doaz gizataldea lagun dabela: Jupiter'en ekantza apain be apain jantzita dakus Apoliñari'k eta jauŕle ta enparauai diñotse: Ezetarako eztan Jupiter oŕen ekantz au, uŕe, zidaŕ eta aŕi-bitxiz apaindu dozuenok, sena ta zentzuna galdu dozuez. Ori entzunaz siñeste bako aek aseŕatu ta Apoliñari'n auŕka jagiten dira: makilaka ta aŕika eyoten dabe ta iltzat etsirik, itxas-ertzeraño naŕaz daroe ta an bertan bera laga. Oraindik bizirik idoro eben kistaŕak Apoliñari, ta gero eleiza izango zan ango etxe baten ezkutau eben.

Sendatu zanean, luzaro mintzul edo mutu egoan eta Bonipagi eritxon zaldunari mintzoa, itz-egiteko almena mirariz emon eutsan Apoliñari'k eta aren alabea be txeŕen zikiñaren menpetik azkatu eban. Alatz onein otsa zabaltzen da ta siñeskeak Apoliñari'n auŕka jagiten dira baŕiro. Emon aleko zigoŕkadaz gorputza ebagi ta gero, txingaŕ gori ganean ortosik darabile; baña suak kalterik eztautsala egiten ikusirik, uritik jauzten dabe. Kistaŕ batzuk lagun dituala, luzarotxu ezkutuan egon ta gero, Emili'ra doa. Alabea eri eukan Efupin andikiak dei-egiten dautso; baña Apoliñari andikiaren etxean saŕtu zaneko, il zan alaba gexoa ta ez beaŕ oŕegaz ezin geyagoan aseŕatu zan aita.

Apoliñari'k bare-bare diñotso: Zure alabea berbiztuko ba'neu, kistaŕ izatea eragotzi egingo ete-zeunkio? Nire alabatxua berbiztu ba-dagizu—darantzu aita atsekabetuak—oŕek eta nik eta nire sendi osoak Josu-Kisto baño beste Jaungoikorik eztau ezautu, autortu ta jauretsiko. Orduan Apoliñari'k neskatila ilari diñotso: Josu-Kisto'ren izenian jagi zaite ta zeure Ongileari eskaŕak egiozuz. Esan eta egin: otsean jagi zan neskatila berbiztua eyagoraz ziñoala: Apoliñari'ren Jaungoikoa egiazko Jaungoiko bakaŕa orixe da. Alatz onen ospeaz irureun biztanle baño geyago kistaŕtu ziran. Ori ikusirik, ango jauŕleak Apoliñari bere auŕera dakaŕ eta agiraka gogoŕa egin ondoren, siñeskuntza-argia zabaltzea zearo galerazten dautso; baña Apoliñari'k jauŕlearen agirakai jaramon barik, baŕien baŕi bere zeregiñari daragoyo. Jauŕlearen aginduz Apoliñari oñazkayan saŕtzen dabe; gorputza zauriz beteten dautse ta zauriak ur irakiñaz galdaŕastau ta eŕe. Ziñopa kementsuak oñezerik andienetan be Jauna goratzen ziarduala oaŕturik, arpegi ta matrala-azuŕak aŕikadaz eyoten dautsez eta birdin-estuntzaz loturik, leotzean saŕtzen dabe. Laugaŕen egunean leitzatik atera, itxas-ontzira eroan eta atzeŕira bialdu eben. Itxas-ontzia ondatu zan eta bertan joazan guztiak galdu ziran Apoliñari ta onen bost lagun kistaŕ izan ezik. Andik-oŕtik ibili ta gero, baŕiro Ravena'ra datoŕ eta lanean asten da. Meza-emoten egoala, arerioak atxekitzen dabe: takateko ta zigoŕ-ukaldiz eyo ta gero, Tauro guldulburuaren etxe auŕeraño daroe naŕaz. Jaun onek semetxu itsua be ba-dau ta Apoliñari deunari diñotso: Neure semetxu oni ikusmena ekaŕi ba-dagiozu, zure Jaungoikoa siñetsiko dot eta nire sendi osoak be bai. Apoliñari'k ereti on ori eztau galdu nai ta itsuari diñotso: Ene seme, Kisto'ren izenean begiok idegizak eta ikusi egik. Umeak ba dakus eta bere guraso ta senideak kistaŕ egiten dira. Kistaŕ izenaren arerioak aseŕatu ziralako, Taurok basetxe baten ezkutau eban Apoliñari. Lau urtean egon zan ezkutu aretan; baña ibili ta ibili baŕiro be arerioen eskuetan jausi zan. Atxilotu, gorputza suzitu aŕte emon alak emon eta iltzat itxi eben. Auzoko etxe batera jaso eben kistaŕak, eta zazpi egunean bizi izan zan. Siñesmenean sendoro irauteko aolkurik edeŕenak emon ta gero, eriotzarik bare ta baketsuenaz il zan ziñopa kementsu au 81'gaŕen urteko gariła'ren 23'an. Jaungoikoaŕen jasandako neke, loŕ eta oñazeak iñoz amaituko eztan zoriona dakaŕe.

E.'TAŔ J.

ERRIJETATIK

AXANGO

EUZKEL-IXENAK.—Eŕi onetako Euzko-Batzoki'ko lendakarija dan Amunategi'taŕ Jagoba'k eta bere emastiak lenengoz alaba bi ekaŕi dabez eta Miren Karmele eta Delbiñe euzkel-ixenak ezaŕi dautsez. Zorijonak euzkotaŕ zintzo onei.

GEXORIK.—Auŕe'taŕ Andoni gexorik auŕkitzen da. Ain bat ariñen osatuko al da.

JUAN-ETOŔIJAK. — Enbeita'taŕ Peli, itxas-ibitalditxu bat eginda etxeratu da. Goŕiño'taŕ Joseba Gazteiz'en egun batzuk egin ondoren emen dogu.

NABARNIZ'ERA. — Notin asko juan ziran emetik be Nabarniz'ko Batzokijaren zabalgunde egunean. Gero Muxika'ra be pilo galanta juan zan ango jayak ziralata. Aŕospide'taŕ Jon'en omenera juan bieŕ, ba.. Pozik etoŕi ziran gustijak.

IBITALDIJA.—Lengo egun baten Kanpantz'ko ikastolako neska-mutilak Donostia'ra ostera bat egin eben. Danak pozik etoŕi ziran eta uŕenguan be juateko gogoz.

ARTEPE

DURANGO

EŔIKO GAUZAK.—Emengo "goŕijak" ingi batzuk banandu dabez, karlataŕak eztiran bazkunen aŕtian ,euren "caza del pueblo"n egingo dan batzaŕera deŕuten. Batzaŕ au, eurak diñuenez, gure endore ta Rojo, eŕizaiñ-nagusijaren auŕka da-ta, asmua daben lez, eurak kendu dagijezala eskatuteko ustia daukoe.

Etxakuz bape atsegin gixon bijok ba ondo irakatsiła daukoe saŕiłan gu ganako daukien goŕotua; onegaŕik argi ta garbi erakutsi genduban gure naya orain dala ile bi inguru euzko-langilen opoŕketa egin zanian. Orduban bidaldu genduban idazkija Rojo kendu dagijela eskatuten, baña goŕijak ez-eben orduko egunian geugaz ezerbe gura ta ezeben idazki a ixenpetu.

Orain aŕte ,ta ondo dakigu zergaŕik, eztira gomutau alkate ta Rojo oŕegaz, eta konturatu diranian danoen laguntza biaŕ dabe eurak jauŕtiteko. Guk eztogu uleŕtuten zergaŕik eskatuten daben gure laguntza ba gauza oneik, Eŕkala etoŕi zanetik ,oso eŕez atonduten dira gure laguntza barik: Teotikotxu'k "real gana republicana"ko agindu bat emon dagijala ta kiłu.

Guk ondo dakigu goŕi oŕen naya zein dan eta endore ta Rojo oŕeik jauŕtu aŕen eztała oberik etoŕiko ta onegaŕik onena ixango da jaramonik ez egiłła, bada bai goŕijak zein karlataŕak gure auŕkalari gogoŕak dira.

Ganera goŕijak zuzentza egin gura ba-dabe, ba-daukoe nun egin euren etxetik asiła. Oŕ daukoez, eŕijak autu bako Soria'ko Sevilla ori ta Gestora'k. Amaikatxu bidaŕ idatzi ta berba egin dogu abeŕtzaliak euren auŕka baña goŕijak eztabe oŕetzaz oraindiño agorik zabaldu ta Sevilla ta Gestora oŕen aldezkari gogoŕenak dira. Zuzentza bila ba-dabilz, eŕijak gura eztabezan Sevilla ta Gestora onek kentzeko eskatutia daukoe. Zuzutzaren gogai apuŕ bat ba-lebe ezin jasan ixango leukie onelakorik; baña goŕi onek nai dabiena argi ikusten da, au da: gure laguntasunagaz Rojo ta endoria kendu, euren ordez goŕitxu bi ixentauteko. ¡Orduban bai edeŕto! Baña, guzuŕak urtengo dautsoe; gu ez-gagoz edozeñen jostalu ixateko ta ondo dakigu zer egin biaŕ dogun.

EUZKEL-IXENA.—Miren Matilde euzkel-ixen begikuaz ugutzau eben Iuŕeta'ko Mikel Deunaren eŕtxadonan Isasmendi'taŕ Imanol, "Uretabaŕen" euzkel-idazle argijaren eta bere emaste Galastegi'taŕ Eskaŕne'ren alabatxu Jayopaŕi bat. Zorijonak.

¿IGANDIAN NORA?—Au da itaun ostera. ¿Nora juango gara, ba? Mañaria'ra. EUZKADI izpaŕingijak argiłaldu daben egiłarau edeŕa irakuŕi dabenak edo "Kirikiño" (G. B.) euzkel-idazle ospetsuba ixan zanaren gomuta apuŕ bat daukanak, ezin ixango da egun oŕetan juan barik geratu. Beraz, igandian gustijok Mañaria'ra.

NASKALDIJA.—Gure aŕtian denbora-alditxu bat igaro ondoren Lekeitio'ra juan da Valdes-Goikoetxea'taŕ Alesander eta bere sendija.

—Fuenmayor'era Munitxa'taŕ Gixane, Uri-Buru-Batzaŕ'ekua dan Arana'taŕ Gotzon'aren emastia. Ondo ibili.

IBAIZABAL

LAZKANO

KARMEL'GO AMA NESKUTZAREN JAYAK.—Urte oro bezela uri ontako Bedirta Deunaren lekaidien eleizan egin ziran Karmel'go Ama'ren jayak. Eleiza apaindurik zan lili ta argiz. Jaupa nagusia esan zun lekaidien Gotzai jaunak eta abeslariak abestu zuten edeŕki.

Itzaldia egin zuan Leander aba agutgaŕi ta gasteak. Ataun'go semea dala erakutsi zigun ain edeŕki mintzatzean. Ondoren lekaideak eta udala batu ziran bazkaltzeko. Aŕatsaldeko bespera ta auŕtza ere edeŕki amaitu ziran. Zorionik sutsuenak lekaide guziai.

—Beraz "Mamitxo" loari zatitxo bat lapuŕtuaz etoŕi ziñan "El Día"ko euzkel-orian idaztera. Bide zuzena bila zatoz. Nork bere begiko ageak ikusi-bage besteren begiko lasto-izpiak bilatzen zayatu gabe badago lana, beraz. Ori ere arasoi andiak da, bañan galdera bat adizkide: ¿Zelan ez degu atzeŕiko oitura txaŕetara duazen abeŕtzaleai bide onak aŕtzeko deitu beaŕ? ¿Oitura oŕeik ez al dira gure abeŕiaren kaltegaŕi?

—Orain idazle batzaŕa degula-ta ez degula ,idazleak "praketan laŕi" gaude. Gipuzkoa'ko izpaŕingiak irakuŕi ta zaunka bat besterik ez degu auŕkitzen, ta zaunka ori zer dala uste dezu irakuŕle? Jas eguneroko euzko-izpaŕingi bat antolatzea. "Euzko", "Argia" ta abaŕ saldu ezin diranian, eguneroko bat gauza zala ixango zaigu.

—Burdiñolako nagusi dan Albitzu'taŕ Joseba Mirena, Fitero'ra juan zaigu. Begiristain'daŕ Joseba apaiz gastea Ezkioga'rako izentau ďute. Zorionak.

IRAMENDI

ALBITZ-MENDATA

Aspaldiko ixiłtasuna itxi-ostian baŕiro natoŕ. Neugaŕik zer esan andijak ixan dabez batzuk. Karlataŕen aldera juan nazala ta abaŕ. Baña karlataŕen aŕtian ni barik, beste abeŕtzale batzuk dagozala dirudit.

OIZ'EN. — Eguraldi oso edeŕaz aurten ospatu dogu Kistobal deunaren eguna Oiz'ko mendi oŕetara eldurik notin asko. Iñoizbaño geyago ixan da eta benetako euzkaldunai yagoken legez, euzko-oiturakaz. Baña batzuk eztakigu zer dauken, bein mendira igon ezkero uste ixaten dabe gustija azke dala, oitura zikiñak, dantza nastubak, nabaŕmenkerijak. Olako gauzak egiłekotan obe etxian geratu.

EZKONTZA. — Lengo baten ezkondu ziran Legaŕeta'taŕ Pantzeska eta Bilbao'taŕ Jone. Zorijonak.

MATALEN-JAYAK.—Jai onek etxian doguz. Garijak ia ebairek dira ta jayok ondo igaroko doguz. Neska-mutilak pozik egongo dira jai oneiłan dantzan egin eta jolastuteko. Neuk be emastegai bat bilatu biaŕko dot...

¿NOR EZKONTZEN DA? — Gastia baño zaŕa geyago da, txirua baño aberatsa ,ezta lodija ez ardanetxe-zalia. Eleiztaŕa atan be. ¿Ilakorik ete-dagon Mendata'n? Lasteŕ jakingo dogu ba nor dan.

ALBIZ-EŔOTAKO

Uaŕa. — Uri-Buru-Batzaŕa'ren ikuŕatz barik datozan idazkijak ezin argiłaldu daikeguz. Beraz, ba, eŕi oŕetako Uri-Buru-Batzaŕa'ren baimena eskatu egixu.—*Lauaxeta.*

GETXO

Zuzendari baimenaz ba-natoŕtzube zeben bijotzak poztuteko asmoz. Aspaldijon euzko-idazliak zaletasun bixi bategaz itxaroten geban eguna, igandez Zumaŕaga'n Ipaŕagiŕe'ren omenez egin ziran jayak.

Eta eguna eldu zaman gustijok alkaŕtuta urten gendun taŕanta edeŕ baten. Eguraldi ona ezkendubaŕa, bein eurija eta bein eguzkija ixan zan Elorio'raño eldu aŕte.

Eŕi onetan jaupea entzuten juan gintzazan eta urtekeran aguŕtau genduban Izaurieta'taŕ Joseba Mirena. Gero Oñate runtz abijau gintzan. Taŕanta baŕuban dana txistu-otsa ta alaitasuna. Amaikatxu euzko-abesti entzuten ziran. ¿Nok ixildu geure emakumiok? Eldu gintzan eŕi onetara ta antziñako ikastetxe nagusija ikeŕtu geban. Etxe edeŕa, baña utsik, tamalez Eŕiłik urten gendunian ¡Gora Euzkadi! oyu egin euskuben eta beste batzuk zapijakaz aguŕ. Zumaŕaga'rako bidia aŕtu gendun. Santzoka ta ifintzika juan gintzan lugin gustijai aguŕ egiñaz. Agertu zan eŕi ori ta txistu ta euzko-abestijak ugari. Txeigo geyenak euzkotaŕen ikuŕiñaz dagoz. Emakumiak, gixonak eta umiak euzkeraz itz-egiten dabe.

Amaiketan aŕtu gintzazan udal-etxera an Ipaŕagiŕe'n omenez egingo zan itzaldija entzutera. Eizagiŕe'taŕ Joseba jaunak edeŕto itz-egin eban, Ipaŕagiŕe'ren bizitzako zertzeladak ageŕtubaz. "Gernika'ko Arbola"z amaiu zan gustija.

Bazkalduten be juan biaŕa eguan, ¿bai?, eta egin genduban edeŕto. Laŕitxu ibili gintzan ezpatadantzari ta gorularijen dantzaketeak ikusteko, baña ezin ikusi berandutxu zalako. Etxerako aldija eldu yakun. Urten gintzan eŕi aretatik poz-pozik. Ipaŕagiŕe zanaren oroimenaz.

Bergara'raño eldu gintzan geratu bariik, bertako euzko-gastedija ikusi ta dantzan poliło egin gendun Montzon'en etxe-auŕian ta amayeran geure txistularijak ereseŕki bat jo eutsen. Baŕiro bitxabal ziaŕ Amorebieta'ra emen ordu erdiko alditxuba egin eta aldenduteko asmoz. Pozik ibili gara ta toki gustijetan abeŕtzaletasuna zerdan ikusi dogu. Orain euzkel-ikasle lagunak jaŕai bide oŕetatik, ia datoŕen urtian beste ainbeste ikasten dogun, Euzkadi'ren onerako.

EUZKEL-IKASLE BAT

MARKINA

KARMENAK.—Iges-egin dauskube datoŕen urteraŕte, Karmel-jai ospetsubak. Karmel egunian jaupa nagusija esan eban Onaindia'taŕ Alberta, kanonigo, jaunak Aŕizubieta eta Oar-Arteta jauparijak lagun ebazala. Itzaldija, Goikoetxea'taŕ Kintin jaunak. Argi, sakon ,samuŕ eta luze. Astin aldi edeŕa emon eutsen musika txaŕ eta dantza lotuben adizkidiai be. Zelako aŕpegija ipiñiko ete eutsen gure alkatetxubak?

Kistaŕ benetako ta euzkeltzale gustijak gaiztetsiŕen dabez dantza nabarmen atzeŕiłaŕak. Oŕatiño ageŕtu yako gure alkatetxuai adizkideren bat "La Constancia"n egubenetan erleauntze joteko aŕtu daben burubidiari "buena idea" esaten dautsen bat, eta Markiña'ko gastedija "muy satisfecha" dagoela esaten dautsena. Bai, ba, jaupari ta lekaimiak beti txaŕto esaten daben lez dantza oŕetzaz sasimoralistaren bat auŕkitu dabe emengo karkatxuak "absolusiñua" ta gorak eurekanduteko. Tira, ba, dantza atzeŕiłaŕ loi ori "en agradable expansion" biuŕtu dabelako pozik ei-dabiz, ta gorde patentie. ¡Olako inbenturik eztogu gura ta!

Pelota joko edeŕak ixan dira aurten, eta ikuslak pozik juan dira. Su artipiziałak be ikusi doguz, gabeko ordubatak aŕteko dantza loya be, ixan da "tío vivo" edo olako gauza bat be emen ixan dogu "tío vivo" dunok "La Constancia" sakelian ibilten ei-eben... ori gaiik etoŕteko baimena euki ete dabe?

Karmel txiki egunian iñoiz ezagutu eztan besteko auŕeskuak egiŕeko gaŕa euki eben gure gaste ta gixonak, baña gure bigaŕen alkatetxubak txanboliñeri esan ei-eutsen, ez auŕeskuŕik joteko gramolia baño. Onexek dira benetako sapuak, ainbeste goŕoto zelan euki legije gure dantzai! Euzko-arerio amoŕatuak soŕtu yakuz Markina onetan. Zer egingo dautsegu ba...

"ETE"RI.—Igaroko egunetan iges egindа zabiz eŕiłik, emengo karkatxuben bilduŕ zaraą? Ala udaldija igaroten juan zara? Zu eŕiłik at zagozan aŕtian zeozer neuk esan biaŕko dot. Markiña'ko emakumiak bixi garıala be jakin dagizun, "Lauaxeta"k oŕetarako baimena emoten badeust.

ETETXU

Uaŕa.—Oŕetarako ta geyagorako be, baimena zeugan dozu. Geure abeŕijaren aldez lan-egiten datosanak atiak zabalik daukez. Jaŕai, ba, neke-barik.

¡GAUR...!

Itxaropenaren abots gozuak igiłuta, aspaldijon joranez itxaroten ixan dogun egun argija, gauŕ eldu yaku.

Ainbeste ta ainbeste abeŕkide zintzogaz anaiasun gozuan igaroteko egun abeŕkoya (J. l.) gauŕ ixango dogu.

Gauŕ, Burutntza'taŕ Ebaista ("Kirikiño") kistaŕ eta abeŕtzale zintzua zanaren omen-jayaz batera gure Batzokija'ren eta Emakume Abeŕtzale-Batza'ren zabalgundia ospatuko dogu. ¡Egun abeŕkoi oso-osokua! Geu garian aŕtian ,gomutan beti ixango dogun egun zoragaŕija!...

Gauŕ, euzko-asabaen gogo deunak, Mañaria'ko aitz jagi tontoŕetan santzo-iŕintzi miragaŕijak egiñaz, euren ondorenguak (jaŕaiziałiok) kementsutuko gaiubez. "Kirikiño"ren gogo zintzua be emen ixango da; geure aŕtian ixango... Beti argiłan datzan Goiko-zelai gentzatsutik, bere ikasle kutun eta aizkide maiiak besaŕkatzen otoŕiła...

Guk baŕiz ,gauŕ, geure asabaen oñatzaŕi zuzen jaŕatzeko, Goiko-Jauna'ren auŕian, Jel-aldez al-dogun lana beti egiłeko asmu berezija aŕtuko dogu. Otoitza ta lanaren bidez auŕera ta auŕera zintzo egiñaz, Euzkadi azkatuten joranez dabiltzazan euzkotaŕ andijari, euren zeregin onuratsuban lagungaŕi ixan gayakiozan...

Ta gauŕ, gure eŕitxu onetara gogo on-onez zatozıezan abeŕkidiok, bijotz-bijotzez aguŕtuten zaiubeguz. ¡Ondo etoŕijak, ba!

MAÑARIKO

Arregi'tar Estepan'i

"Eguzkiñe" eta "Amaya" euzkel-ixenatzaz iłaundu daustasunari erantzuna emoteko auxe dozu. *Deun-Ixendegi Euzkotaŕa*'n eztagoz ixen oneik. Baña "Eguzkiñe"k zer atzaldu daruan, eŕaz, igaŕi daikezu. Eŕderazko "Sol ixena, euzkeraz "Eguzkiñe" dogu. ¿"Sol" ixenik danuntz? Bai orixe. Euzkeltzaindiko lendakari azkaŕa danaren aŕeba bateri olantxe deritxo.

"Amaya"k, baŕiz, eŕderazko ikuŕik eztauka. Euzkel-ixen au saŕi baño saŕijagotan entzun daruagu. Aspaldijon ezaŕten dautse umiai. Nabarro Biloslada'ren irakuŕgaya dala-ta-edo, "Amaya" au baŕeyatu edo zabaldu da. "Amai", "fin, término" eta abaŕ atzalduteko itza dogu. "Amaya" beraz "el fin" dogu.

Aguŕ eta agindu beti.

L.

"Kirikiño" zanaren oroiz

Lauaxeta

Gixon on eta abeŕtzale zintzo aren gomuteak alkaŕtu garuaz. Ezin kendu daikegu burutik aren lan edeŕa. Euzkadi'n ixan ziran gixon on askoren aŕtian azkenengua barik lenengua ixan zan.

Geure irakasle bakaŕa ixan zan Sabin'an jaŕaitzale argija, euzkerea maite-maite ixan ebana. EUZKADI onetan idatzi euzanak erein eben benetako abeŕtzaletasuna. Urtiak juan urtiak etoŕi, aren lana aratzago geratuko yaku. Bai, ba, abeŕtzaletasunak indaŕtu daruan lana, betiraunerako lana dalako.

Euzkerea gora ta bera darabilen askotxuk, "Kirikiño"ren gogaya ontzak aŕtu biaŕ leukie. Euzkerea malagaŕija dalako ezeban maletuten, geure abeŕijaren elia dalako baño. Onetan aldakuntza andija dago. Batzuk maite dabe antziñako ele zaŕa dalako. Jakintza-zaliak erabili darabile gauza bakanak erabiłłen diran legetxe.

Baña "Kirikiño" etzan olakua. Ele au maite eban, geure abeŕi bakaŕaren ezaugaŕirik edeŕena zalako.

Origaŕik idatzi eban. Baña idazle argija ixan ba-zan, be, aren gogo ona geralgaŕijagua zan. "Kirikiño"tzaz itz-egingo danian, idazlia geralduko dabe, baña ezin bazteŕtu al ixango dabe aren ondasuna.

Bijotz oberik etzan. Gustijentzat eukan baŕe-iŕi samuŕa. Eta bide latzatan asi diran idazliai lagunduteko, aren añakorik ezta ageŕtu. Ezta be ageŕtuko.

Orain, ildegijan lotan datzanian aretzas gomutauten gara. Ezin aztu gara. ¿Eta zelan aztuko gara? Euzkadi gustiko idazliak, urtero-urtero euren lorak opolduten dautsez.

Mendi-aŕtian ostendurik daguan ilobi aretan, amaikatxu otoi samuŕ esaten dogu. Aurtengo otoya, be, beste urtietakua lakoxia ixango da. Got-aldetik lagundu dagiskula geure abeŕija aztkatuten. Geure iskuntza oni arnas egin dagijon Jaunak, aŕen eskatu dagijola.

Gauŕ batuko garan ildegi taŕuan, gustijok bat-batera daigun eskari au. Geure alegiñak ezer eztira, Goikuaren arnasa-barik. Areri yagoko il zorijan dagona gaizkatulia, berari dago eŕijen azkatasuna.

"Kirikiño" ikeŕtuten juango garan jeltzaliak, batez-bere, ain jeltzale zintzua ixan zanaren adizkidiak, zin-dagigun geure ele edeŕ au goralduteko.

Pitxi bat dalako ez, Euzkadi'ren mamiña dalako baño.

Egun onetan, EUZKADI'ko lenengo idazlia ixan zanari, otoi au bidalduten dautse bere ikasliak. Goiko atsedenetik, Sabin'agaz batera, aŕen dagijela geure-aldez.

TEMAS VASCOS

Etimología de un toponímico orduñés

Existe en territorio de la única ciudad bizkaina de Orduña una fuente muy famosa conocida con el nombre de LATETA. Es creencia general que tiene asignado este nombre por su forma parecida al pecho de las hembras. Cuantas veces he bebido su rica agua, he disentido de la opinión vulgar; a mi entender creo que este toponímico es completamente euzkérico y de clara etimología que la vamos a descifrar. J. I.:

LATETA se descompone en dos elementos: LA-(T) ETA. El primero, según vemos de los componentes topográficos que estudiamos en nuestros trabajos publicados en la revista "Euzkerea", tiene la significación de ARENA en toponimia, y el segundo, ETA, es el conocido sufijo local plural, que se traduce al castellano por LOS o LAS, según el género del sustantivo. La T que se halla entre los dos componentes es debido a apéntesis, o sea aumento de los elementos del vocablo en virtud de agrupación, por la ley fonética del euzkera, que obliga a intercalar una consonante entre el choque de dos vocales simples o a eludir una de ellas. De los ejemplos gramaticales que podemos citar es el más corriente el del sufijo posesivo EN, que en singular agrega siempre la R eufónica, por choque con vocal del artículo singular A, que necesariamente tiene que llevar el sustantivo que se une: Gixona-(r)-ren, del hombre.

Por lo tanto, LATETA se traduce al castellano por LAS ARENAS: LA (arena) T (epentética) y ETA (artículo toponímico plural).

Con este nombre son designados también un caserío en Gatika y un herbal en Ibarrola (Murelaga), ambos en Bizkaya.

Esta etimología tiene verosimilitud morfológica, como acabamos de probarlo, y significa, como podemos demostrarlo: A nuestro parecer, el terreno concuerda admirablemente con el significado, pues cualquiera que conozca la fuente dicha observará que su suelo es arenoso. Para salir completamente de dudas un abertzale orduñés nos puede ayudar: en el citado sitio está la toma de aguas que abastece a la ciudad de Orduña; por lo tanto, siempre ha tenido que ser famoso este lugar por la calidad y la cantidad de agua. Es fácil, pues, comprobar en el archivo del Ayuntamiento orduñés si este nombre prevalecía antes de construirse la fuente, que es de suponer lo harían al verificarse la toma de aguas. Al orduñarra que, por amor a nuestro viejo idioma, se tome esta molestia, le quedaremos agradecidos los euzkeltzales.

También puede resultar, debido a sus abundantes aguas, que la verdadera etimología sea esta otra:

LATS (arroyo) y ETA (toponímico plural), cuya primera forma LATSETA, LASTETA, LATETA, cuyo vocablo final ha perdido por eufonía la S de su primer elemento. Pero en este caso cabe preguntar: ¿Coincide esta etimología con las significaciones de los dos toponímicos mencionados en segundo término? Los indígenas de Gatika y Murelaga tienen la palabra.

URDIOLA.

Etorkunde-ostegun VII igandia

SAŔKUNA (46'g. Er.). Eŕi gustiko txaloka egixube; alai-ta-poz goretsi gua.

Goiko-Jaun gurena ikaragaŕiia ludi gustiko bakalduna, ixan be.

Amtza... Eŕi gustijok...

OTOYA. Goiko Jaun ori: zure ratasun-erabakijak uts-egiten eztabe ro, aŕen, kaltegaŕi yakuna aldendu onuragaŕi yakun gustija jadetsi daitezula deskatzugu. Amaibako egunetan ta Goteuna'rekin batez bakaldun bizi zeure Seme Josu-Kisto gure Jaunagaz bide.

IDAZKIJA. Paul Beldu deunak mataŕai egindako Idazkiko irakuŕgaya 19-23).

Anayok: Aragiz argalak zaraelako xabidez diŕautzubet: oben-egiteko, soin-atalak zantaŕkerijari ta gaiztakeri baŭ leutsezubezan letz, orain soin-atalok zindokuntzearı jopu-egiten biltzubez, deuntasuna jadesteko. Obe zintzazenian, zindokuntzatik asago zen, egon be. ¿Onik, baŕiz, atara etzuben orduban, aŕezkero lotsabide bezan egiñenetatik? Aen azagea bai'da. Orain, baŕiz, obenetik azkatu Jaungoikua'ren jopu egin zaraenaz deuntasuna dozube emoitz, eta betiko xitza elburu. Oben-sarija erijotza ba Jaungoikua'ren emoya, baŕiz, betiko tza, Josu-Kisto gure Jaunagan.

MALAGUNIA (33'g. Er.). Erdimiok, entzustazube: Jaunagazko bi irakatsiko dautzubet. I. Uŕeratu zaki ta argiztuko zarae; eta zuben arpegi eztira lotsaz beteko.

Aleluya. Aleluya (40'g. Er.). Eŕitijok, txaloka egixube; alai-ta-poz gore Jaungua. Aleluya.

GOIZPAŔKIJA. Matai deunaren auzko Goizpaŕ-jaŕaikuna (7. 15-21).

Aldi aretan, Josu'k bere ikasliai esan leutsen: Sasi-iragaŕlietaz ardi ixan ,ardi-naŕuz bai'datoŕkixubez, baña, otso amoŕatubak dozubez: euren narijetaz ezaun dezaukezubez. Ala, jetatik matsa biltzen ete-da? Edo, tatik pikua? Aulan, ba, zugatz zindo arnari zinduak emoten dauz; eta maloka orok arnari utsalak emoten Zugatz zinduak ezin daikez arnari buak ekaŕi; eta zugatz jarondubak daikez arnari zinduak egin. Arnari rik egin eztaiken zugatz edozeinbere ki ta sutara egotziko da. Euren jetaz ezaun dezaukezubez, ba. "Jabe be", diñoskedan edonorbere ezta goi-baŕu saŕtuko; goyan dagon nire Aren gurea betatuko daikena, bai, saŕtuko da goi-ala-baŕu.

OPAKUNDIA (Dan., 3). Ari-ero-eŕoparijak, eta aneika bildots gixenkuak, ontzat aŕtzen leukazan letz, oparijau be atsegin ixango al dok gauegaz, Jaun oŕegaz, uste diranak ezdira lotsagaŕiłuko.

OTOI IXILA. Lagi zaŕeko opari diñezak jauskain bakaŕaz osotu leuzu Urtzi Jaun ori: zeure jopu maialiok keintzugunau, be, aŕtu ta zeure onetsi donetsi egixu, beñolako Abel'en ofrendako letxe; bakotxak Goiko-Jaun oŕen gustiko eskeñi dauna gustijon gaizkakundeŕako dadiłentzat. Amaibako.

JAUNAŔTZAKUA (30'g. Er.) Eŕitsegistak; erdu arin ni jaregiten.

JAUNAŔTZOSTEKUA. Jaunoi: erazodura sendakoŕak geure txaŕkeriłtik eŕukiz jareingo al gauz, ta eŕkun ontara zuzendu. Amaibako egunetan...

Erabakijak. Sasi-iragaŕlien irakaskinak eztot aintzat aŕtuko. Eguneroko bestelako ingi txaŕik irakuŕi ez, ta ginera, bestiak be irakuŕi eztaikiezanez alegiñak egingo dodaz.

Donokija irabazteko, baŕiz, Goiko-Jaunaren gurea betetan aleginduko naz.

ATAŔIZBARNA

Artua eta bahia txikitutzeko makinak

Txomin Olano'k

Saltzen ditu, merke

Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

Aranburu'tar R

AZAL ETA TXIZ-BIDIAK

Fueros, 5, 3.º DONOSTIA

MARTIKORENA

Begiyetako gaixoen sendegilleak

Zaribay, 13 bis, 2.º - DONOSTIA

GOBIERNO CIVIL

Regresó el gobernador

El gobernador recibió a los periodistas a quienes dijo que había regresado de su viaje a Soria.

Fué interrogado si no había ido a ningún otro sitio que a Soria, pues los rumores circulados decían que también fué a Madrid.

A esto que le dijeron los periodistas el señor Sevilla contestó que, como ha dicho, su viaje había sido a Soria.

"De los rumores de mi dimisión que me dicen ustedes, no tengo la menor noticia."

Lo dicho—siguió el señor Sevilla—: no hay tal dimisión.

A continuación dijo que el número de ayer del semanario nacionalista "Jagi Jagi" había sido denunciado y recogido.

Los periodistas le preguntaron si estaba autorizados unos actos polític